



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko irailaren 16a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baitira abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legea, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea, sozietateen gaineko zergari buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxea zer egoeratan dagoen informa dezan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, elkartasuna eta aintzatespena adierazten baitizkio “*Askatasunaren Bigarren Flotilla. Jarrai dezagun gizakiak izaten*” izeneko nazioarteko elkartasuneko ekimenari. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Sodenak Sunsundeguiaren erosketaren gainean hartuko duen erabakiari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko kideek azaroaren 20ko hauteskundeetarako dituzten aliantza-politika ezberdinek Gobernuaren egonkortasunean izan dezaketen eraginari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak, Hezkuntzan eginiko murrizketak direla-eta, asmorik ote duen irakasle-ikasle ratioak betetzeko, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (9. or.).
- Galdera, dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera berrantolatzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (10. or.).
- Galdera, baso-suteen arrazoiei buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (10. or.).
- Galdera, pertsona fisiko, autonomo eta enpresei zor zaien kantitateari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).

- Galdera, “onura/gastu fiskal” deritzenak kentzearen arrazoia buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (12. or.).
- Galdera, aurrekontuko diruan 2012rako muga gisa ehuneko 2,95eko beherakada ezartzearen arrazoiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (12. or.).
- Galdera, aurrekontuan murrizketak jasanen dituzten kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (13. or.).
- Galdera, pertsonak ETaren ekintzetatik babestera urtealdian bideratzen den zenbateko orokorrari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (14. or.).
- Galdera, haur-hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baitira abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legea, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea, sozietateen gaineko zergari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 7an hartutako erabakiaren bidez, Foru Lege proiektu bat igorri du Nafarroako Parlamentura, zeinaren bidez aldatzen baitira abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legea, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea, sozietateen gaineko zergari buruzkoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Foru Lege proiektu hori, zeinaren bidez aldatzen baitira abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legea, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetzeari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baitira abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legea, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea, sozietateen gaineko zergari buruzkoa

SARRERA

Foru lege proiektu honen aurreneko xedea da sendotu eta areagotzea Nafarroako Gobernuaren ezartzen ari den neurriak, 2011n Nafarroako Foru Komunitatean defizit helburua bete dadin lortzeko, egonkortasun ekonomikoaren plan nazionalaren baitan. Defizit helburu hau Estatuarekin adostu da, gehienez ere Nafarroako 2011ko BPGaren gaineko 100eko 1,30ekoa izan dadin, kontabilitate nazionalaren parametroetan neurtuta.

Krisi ekonomikoa eta finantza arloan zailtasunaren egoera bizi ditugun honetan, defizit publikoaren kontrola eta, oro har, zerga eta aurrekontuaren arloan sendotzea lortzeko asmoari lehentasuna eman behar zaio, Foru Komunitateko kontu publikoen esparruan ere.

Espainiako batez bestekoa baino hobea izan arren, Nafarroako ekonomiaren bilakaera ere jasaten ari da ekonomia guztiei eta, bereziki, Espainiakoari eragiten dieten zailtasun larriak. Horren ondorioz, gure erkidegoko zerga bilketa, 2011ko ekitaldi honetan, aurrekontuetan ezarritakotik behera gelditu da, iaz erregistratu genuena baina handiagoa izanagatik ere. Era berean, Estatuko Kontu-hartzailetza Nagusiak defizitaren betetzea kalkulatzeko aplikatu izan dituen kontabilitate nazionalako doitzeko irizpide zorrotzak direla eta, beharrezkoa da 2011ko aurrekontu ekitaldia amaitzeko falta den aldirako berrikustea bai diru-sarreraren

arloko politika, bai gastu publikoaren kudeaketaren arlokoa.

Hortaz, 2011ko Aurrekontuaren diru-sarreraren eta gastuen bilakaera ikusirik, Nafarroako Gobernuak, aurtengo irailaren 7an, ekitaldi honetan egin behar dituen gastuen murrizketa onetsi du, bai eta murrizketa hori gauzatzeko zenbait jarraibide ere.

Testuinguru honetan, foru lege proiektu honek hiru jardun-esparru aurreikusten ditu. Lehenengo eta behin, aurrekontuak mugatzeak izanen dituen ondorioak eta, baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzeko, haien kudeaketan malgutasun handiagoa izatea uztartzeko asmoz, aldaketa bat egingen da Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2010 Foru legearen 40. artikuluan, 2011ko abenduaren 31ra arteko ondorioekin. Artikulu horretan, tratamendu berriazkoa ezartzen da gastuen zenbait kontu-sailen aurrekontu kudeaketarako.

Foru lege proiektuaren bigarren helburua da gastu publikoaren murrizketari aurre egiteko gaitasun handiagoa ematea 2011. urtean. Kontratuaren balizko aldaketa aldeztu da, haien prestazioak murriztea ahalbidetzeko edo betetzeko epea luzatzeko; aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzeko xedearekin, ondorio hauetarako egingen diren kontratuaren aldaketarako ekimenak interes publikokoak izanen dira.

Hirugarren esparrua Sozietateen gaineko Zerga aldatzeari dagokio, Zerga horren konturako ordainketa zati batean aurreratuzko, 2011n, 2012an eta 2013an, eta fakturazio bolumen handiena duten enpresei aplikatzeko. Beharrezkoa da ohartaraztea ekarpen horren igoera ez dela berez zergaren igoera, kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoko likidazioaren konturako zatikako ordainketari baizik ez diolako eragiten. Beraz, aipatutako neurriak zergaren bilketa lehenago egitea baizik ez du ekartzen, hau da, diru-sarrera publikoen aldietako bat aurreratzea.

Aldaketaren funtsa hauxe da: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari hogeigarren xedapen gehigarria eranstea, denborari dagozkion bi aldaketarekin, soilik 2011n, 2012an eta 2013an hasten diren zergaldiei eraginen baitiote.

Batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 73. artikuluan 1. idatz-zatian jasotako lehen modalitatea aplikatu beharko zaie azken zergaldi itxian negozioen zifraren zenbateko garbia hogeit milaurotik gorakoa izan duten subjektu pasiboak, betiere zergaldi horretan zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitua bada 2011ko,

2012ko edo 2013ko urriaren lehen egun naturala baino lehen, kasuan kasukoa.

Bestetik, lehen modalitate horretako ehunekoa 100eko 45era igo da, azken zergaldi itxi horretan negozio zifraren zenbateko garbia hogeit milaurotik beherakoa izan duten subjektu pasiboentzat, eta 100eko 55era, berriz, aldi horretan negozio zifraren zenbateko garbia hirurogeit milaurotik beherakoa izan duten subjektu pasiboentzat.

1. artikulua. Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 22/2010 Foru Legearen 40. artikuluan aldaketa.

Bat. Artikuluak titulu berria izanen du, eduki honekin:

“40. artikulua. Nafarroa 2012 Planerako, krisiaren aurkako neurrietarako eta aurrekontu egonkortasunaren helbururako kontu-sailak”

Bi. 4. idatz-zatia gehituko zaio, eduki honekin:

“4. Aurrekontu egonkortasunaren helburua lortzeko xedeaz eta izaera orokorrekarekin, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 44.1 artikuluko a) letratik d) letra bitartekoetan eta 50. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusten diren kreditu transferentzien murrizketek ez dute ondorioz izanen, 2011ko abenduaren 31ra arte.”

2. artikulua. Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legeari hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria erantsiko zaio, eduki honekin:

“Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. Kontratu publikoen aldaketa.

Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru legearen 105. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, 2011ko aurrekontu ekitaldi honetan kontratu administratiboetan egindako edozein aldaketa interes publikoko arrazoiengatik egiten dela ulertuko da, baldin eta haren xedea bada aurrekontu egonkortasunaren helburua lortzea, obligazioen bolumena apalduz edo kontratua betetzeko epea luzatuz”

3. artikulua. Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari hogeigarren xedapen gehigarria erantsiko zaio, eduki honekin:

“Hogeigarren xedapen gehigarria. Zergaren zatikako ordainketaren aldaketa.

Ondorioak soilik 2011n, 2012an eta 2013an hasten diren zergaldietan izateko, honako aldaketa hauek eginen dira zergaren subjektu pasiboek egin beharreko zatikako ordainketan:

1. 73. artikulua 1. idatz-zatian jasotako lehen modalitatea aplikatu beharko duten subjektu pasiboak dira negozioen zifraren zenbateko garbia hogeit hamar milioi eurokoa edo hortik gorakoa izan dutenak azken zergaldi itxian, betiere zergaldi horretan zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitua bada 2011ko, 2012ko edo 2013ko urriaren lehen egun naturala baino lehen, kasuan kasukoa.

Aurreko lerroaldean aipatzen den zergaldi amaituak urtebete baino gutxiagoko iraupena badu, aurreko ekitaldiari edo ekitaldiei dagokien negozio zifraren zenbateko garbia ere hartuko da, zati proportzionalean, harik eta hamabi hilabeteko aldia osatu arte.

2. 73. artikulua 1. idatz-zatiko lehen modalitatean aipatzen den ehunekoa hauxe izanen da:

a) 100eko 45a, subjektu pasiboaren negozio zifraren zenbateko garbia, aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztua, hogeit hamar milioi eurokoa edo hortik gorakoa baina hirurogeit hamar milioi eurotik beherakoa bada, azken zergaldi itxian, betiere zergaldi horretan zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitua bada 2011ko, 2012ko edo 2013ko urriaren lehen egun naturala baino lehen, kasuan kasukoa.

b) 100eko 55a, subjektu pasiboaren negozio zifraren zenbateko garbia, hau ere aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztua, hirurogeit hamar milioi eurokoa edo hortik gorakoa bada, azken zergaldi itxian, betiere zergaldi horretan zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitua bada 2011ko, 2012ko edo 2013ko urriaren lehen egun naturala baino lehen, kasuan kasukoa.

3. Aurreko idatz-zatietan araututako zatikako ordainketatik datorren tributu zorra ezin izanen da geroratu ez eta zatikatu ere, ordaintzeko borondatezko epean nahiz derrigorrezkoan.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa ez zaie aplikatuko xedapen gehigarri honek indarra hartzean aitorpena aurkezteko epea hasia duten zatikako ordainketei.”

Xedapen gehigarri bakarra. Kreditu transferentziak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 45.2 artikulua Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari kreditu transferentzien arloan ematen dizkion eskumenak 2011ko abenduaren 31ra arte Nafarroako Gobernu departamentuetako kontseilariarenak direla ulertuko da, zein bere eskumenen esparruan.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioak izateko.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxea zer egoeratan dagoen informa dezan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sarrigurengo Osasun Etxea zer egoeratan dagoen informa dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Bakartxo Ruiz Jasok eta Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko 195. artikulua eta hurrengo babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Sarrigurengo osasun etxea abian jartzeko aurreikusitako epe bat bera ere ez da bete eta aldiro atzeratu da haren irekiera, halako moduan non ireki gabe jarraitzen baitu, nahiz eta maiatze-

ko hauteskundeak baino lehen formalki inauguratu zen. Hartara, erabiltzaileek bost urte luze daramatzate pairatzen Eguesko Udalean zerbitzurik ez egoteak eragindako eragozpenak. Oraingo honetan, oinarri-oinarrizko zerbitzu bat da faltan dutena –osasun zerbitzua, alegia–, sarritan salatu izan denez.

Herritarren bizi-kalitatea kaltetzen duen egoera bidegabe horren aurrean, herritarren ordezkari ororen betebeharra pertsonen –gure bizilagunen– ongizatea aldezteaz denez, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari ondoko erabaki proposamena aurkeztzen diogu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta haserrea adierazten dio Nafarroako Gobernuari, Sarrigurengo osasun etxea abian jartzeko ezarritako epeak behin ere bete ez direlako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio, zehazki Osasun Departamentuari, berehala ireki dezan, luzamendutan ibili gabe, Sarrigurengo herritarrentzat oinarritzkoa den osasun-zerbitzu hori.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio, zehazki Osasun Departamentuari, modu egokian funtzionatzeko behar diren giza baliabideak eta zuzkidura teknikoak edukita ireki dezan Sarrigurengo osasun etxea.

Iruñean, 2011ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, elkartasuna eta aintzatespena adierazten baitizkio “*Askatasunaren Bigarren Flotilla. Jarrai dezagun gizakiak izaten*” izeneko nazioarteko elkartasuneko ekimenari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa, elkartasuna eta aintzatespena adierazten dizkiete “*Askatasunaren bigarren flotilla. Jarrai dezagun gizatiarrak izaten*” izeneko nazioarteko elkartasun-ekimenari eta, bereziki, bidaia Dignité-Al Karaman egiten ari zirela Israelgo armadaren aborjatzea pairatu dutenei.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazi nahi die Gazan sartzea ukatu zaien estatuetako parlamentuei eta ekintzaileei, eta Israelgo Gobernuak izan duen jarrera gaitzesten du, behatzaileei behin eta berriro ukatu baitie Gazako Zerrendan sartzea.

3.- Nafarroako Parlamentuak eskatzen du nazioarteko erkidegoak modu eraginkorrean parte har dezan nazioarteko zuzenbidea ezartzeko eta modu aktiboan zaindu dezan giza eskubideak betetzen direla.

4.- Nafarroako Parlamentuak gizarte zibila gonbidatzen du herri palestinarrekiko elkartasun-ekintzetan parte har dezan.

5.- Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten du sionistek Nazio Batuen Erakundearen ebazpenei aurre egitea eta ez betetzea, horrek ez baitu laguntzen bakea lortzen.

6.- Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez igor dezan adierazpen hau Israelgo erakunde eskudunetara. Halaber, erakunde horiei dei egiten die hartutako konpromisoak bete ditzaten, Gazako blokeoaren amaiera ziurta dezaten, eta herri palestinarren giza eskubideak ez ditzaten urra, herri hori edozein akordiotako alderdi funtsezkotzat hartu behar baita.”

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Sodenak Sunsundeguiaren erosketaren gainean hartuko duen erabakiari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak Sunsundeguiaren erosketaren gainean hartuko duen erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Sunsundegui enpresak bizi zuen egoera zaila ikusita, Nafarroako Gobernuak bi urterako akordio

bat itxi zuen, Sodenaren bitartez, enpresaren jabeekin. Akordio horretan besteak beste ezarri zen Sodenak bere gain hartzen zuela enpresaren kudeaketa eta Sodenak konpainiaren akzioak erosteko aukera izanzen zuela 2011ko urriaren 23ra arte.

Sunsundegui 250 pertsonak lan egiten du gutxi gorabehera, eta hurbileko enpresen bilbeko beste horrenbesteri ere ematen die lana. Krisi ekonomikoa bereziki gogor ari zaio erasaten Sakana-ko eskualdeari, eta, logikoa denez, kezka handia dago konpainiaren etorkizuna dela eta.

Sodenak izendatutako enpresa-zuzendaritzak eta langileen ordezkariak akordio bat itxi dute etorkizuneko gizarte-plan baten esparruan. Urriaren 23a, ordea, hurbil da, eta oraindik ere ez dakigu Sodenak zer erabakiko duen.

Horrenbestez, ondokoa jakin nahi dut:

Sodenak Sunsundegui enpresa erosteko duen aukeraren gaineko epea urriaren 23an agortuko da. Zer erabaki hartuko du Sodenak?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola jauna

Galdera, Nafarroako Gobernuako kideek azaroaren 20ko hauteskundeetarako dituzten aliantza-politika ezberdinek Gobernuaren egonkortasunean izan dezaketen eraginari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuako kideek azaroaren 20ko hauteskundeetarako dituzten aliantza-politika ezberdinek Gobernuaren egonkortasunean izan dezaketen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako kideek azaroaren 20ko Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeetarako dituzten aliantza-politika ezberdinek zer eragin izan dezakete Gobernuaren egonkortasunean?

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak, Hezkuntzan eginiko murrizketak direla-eta, asmorik ote duen irakasle-ikasle ratioak betetzeko.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak, Hezkuntzan eginiko murrizketak direla-eta, asmorik ote duen irakasle-ikasle ratioak betetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza publikoan eginiko murrizketen ondorioz plantillen eta taldeen negoziaketan eginiko aldaketak direla-eta, ba al du Hezkuntza Departamentuak asmorik irakasle-ikasle ratioak betetzeko?

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera berrantolatzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera berrantolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Sarrigurengo osasun etxea

Zer planteamendu izaten ari da, eta nola ari da gauzatzen dauden baliabideen berrantolaketa, zeina nahitaezkoa baita, kontseilariaren esanetan, Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitzeko?

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, baso-suteen arrazoiei buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, baso-suteen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu-ko idatziz erantzun dezan.

2010ean 1.031 sute gertatu ziren Nafarroako basoetan. Sute horietarako egon zitekeen arrazoiei dagokionez, 592 kasutan –kasuen % 57,42– ezezaguntzat jo zen ezbeharraren jatorria.

2011ko lehen zazpi hilabeteetan gertatutako 654 suteetatik 311tan –% 45,5– jo zen ezezaguntzat ezbeharraren jatorria.

2010ean erretako 1.184 hektareetatik 495 mar-txoan eta apirilean erre ziren (% 42). Azalera hori uztail eta abuztu beroan erretako azalera baino handiagoa da, hilabete horietan 443 hektarea erre baitziren.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

Zer arrazoi dago 2010eko martxoan eta apirilean azalera hain handia erre zedin? Zeri zor zaizkio hilabete horietan izandako suteak? Zenbat espediente ireki zen eta zenbat zehapen ezarri zen?

Zer arrazoi dago jatorri ezezaguneko baso-suteen ehunekoak hain handia izateko? Ez al da suteen jatorria ikertzen? Gainontzeko autonomia erkidegoetan ere halako ehunekoak gertatzen al

dira? Zer egiten da baso-suteen jatorriaren gaineko ezjakintasun handi hori murrizteko?

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, pertsona fisiko, autonomo eta enpresei zor zaien kantitateari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, pertsona fisiko, autonomo eta enpresei zor zaien kantitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zenbatekoa da Foru Administrazioak pertsona fisikoei, autonomoei eta enpresei zor diena fakturazioaz edo betebehar-aitorpenaz geroztiko 50 egun baino gehiagoko atzerapenarekin?

Eskatzen dugu zenbatekoa zehaztu ondoren xehakatuta eman dadila zenbat zor zaien pertsona fisikoei, langile autonomoei eta enpresei.

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “onura/gastu fiskal” deritzenak kentzearen arrazoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “onura/gastu fiskal” deritzenak kentzearen arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak atzo iragarri zuenez, 2012ko Aurrekontuak egitean ez dira sartuko “onura/gastu fiskal” deritzenak.

Hori dela eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Zergatik Nafarroako Gobernuak, azkenean, bere akatsa onartu eta kendu egingen ditu Aurrekontuetako gastuen kontaketatik “onura/gastu fiskal” deritzenak, beti ezezkoa esan ondoren behin eta berrizko eskaera sindikal eta politiko progresistei?

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, aurrekontuko diruan 2012rako muga gisa ehuneko 2,95eko beherakada ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, aurrekontuko diruan 2012rako muga gisa ehuneko 2,95eko beherakada ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak aurreikusitako duenez, Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua prestatzerakoan, aurrekontuan jarriko den diru-kopuruaren muga % 2,95 murriztuko da.

Hori ikusirik, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Portzentaje hori zehazteko, kontuan hartu al da egungo zerga-errealitatean aldaketarik egitea?

2.- Zergen arloan aurreikusitako aldaketa bakoitzarekin diru-sarrerak zenbat handitu edo murriztuko diren jakin nahi dut.

3.- Zehazki, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak ondarearen gaineko zerga berrezartzea (edo

egungo 0 tipoa aldatzea) edota antzeko zergaren bat sortzea?

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, aurrekontuan murrizketak jasanen dituzten kontusailei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, aurrekontuan murrizketak jasanen dituzten kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak gaur iragarri duenez, ekitaldi honetako aurrekontua % 3,9 murriztuko da; hau da, 163,6 milioi euro. Halaber, beste 163,6 milioi hurrengo ekitaldirako utziko dira. Beraz, murrizketa 327 milioikoa izanen da, guztira.

Iragarpen hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zeintzuk dira murriztuko diren kontusailak, departamentuz departamentu?

2. Zer irizpide edo justifikazio baliatu da edo baliatuko da heldu den urterako utzi edo zuzenean murriztu ahal diren arloak aukeratzeko?

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, pertsonak ETaren ekintzetatik babestera urtealdian bideratzen den zenbateko orokorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, pertsonak ETaren ekintzetatik babestera urtealdian bideratzen den zenbateko orokorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbat diru bideratzen du urtealdian, guztira, pertsonak ETaren ekintzetatik babestera?

2.- Zenbat ibilgailu erabiltzen dira horretarako? Kontzeptu hori dela-eta urtean zenbat gastatzen den jakin nahiko nuke, bai mantentze-lanetan, bai erosketetan, rentingean edo erabiltzen den formulatan.

3.- Zenbat pertsona kontratatzen dira edo kontrataturik daude aipatutako zereginetarako? Kontzeptu hori dela-eta urtean zenbat gastatzen den jakin nahiko nuke.

4.- Jarduera horri dagozkion bestelako kontzeptuak xehakatzeko nahiko nuke, bakoitza dagozkion kostuarekin.

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, haur-hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, haur-hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Nafarroako Gobernuak zer asmo du haur hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzearen inguruan?

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Eraikitzeko epea.

– Ikastetxe berria abian jartzeko dataren aurreikuspena.

– Ikastetxe berriaren ezaugarriak.

– Aurrekontu-beharrizanen aurreikuspena, urteka.

Iruñean, 2011ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

